



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



adurra dariola lerdea ahotik behera	Erdi lo doa, aitaren besoetan, adurra dariola, betile luzeen eta kaleko argien mirari epel eta hauskorra baino ez da.	18
agintaritza buruzagitza	Bakarrik egiten dute lan, baina bada agintaritza bat, bada kate bat eta beren moduan kate-begiak baino ez direnek astean behin elkartu behar dute...	12
ahantzura ahazte	puzzle hautsia, hemen Tristuraren Etxea, hemen Negar Guztien Dorrea, han Hiru Minen zubiak, ibaia zeharkatzen aldez alde: Ahantzura , Doluminak...	79
aharrausi aho-zabaltzea, loguragatik	Deustuko Erriberan, Eromen Galduen labirintoa eta Ibaiaren Ezkerraldean, Zorrotzarteko Aharrausien Meskita.	81
ahiturik erabat nekatuta, indar gabe	Katu Kaleko tabernen ereserkia, «zatoz eta mindu dezagun» zioen letrak, «min egarri den azala, min gosez ahituriko hiria».	54
aiene erosta, intziria, kexa	Lepoa luzatzen zaio eta sexu-gosea aseta duen gorputzaren aiene luzea egiten du.	44
aitabitxi aitajauna, aita pontekoa	Tira, zera esan nahi dizut. Sonny bizirik ateratzen dela atentatutik eta bera egiten dutela familiako aitabitxi . Film hori ikusi nahiko nukeela, horixe...	64
aje mozkorraldiaren ostea, ondoeza	Momentu honetan, zaude ziur, gintonik honetan sinesten dudala eta zuk eta biok bihar goizean izango dugun aje an.	29
aldarri oihu bidezko eskaria edo mezua	«Profesionalak lo egin behar du!», egiten du aldarri Hamarrek, etxera abiatzen direnean.	17
aldendu urrundu, urrutiratu	Hamar eta Emek goizaldera arte elkarrekin itxaron zuten eraikin zaharrean, txakurrak aldendu arte.	62
altzoan magalean, sabel inguruan	Izerdi lamatan zegoen koittadua, bere altzoan .	63
amaraun armiarma-sarea	Sekula ikusi gabeko hiria ikusi zuen, baina ez zen hiria, hiriaren aukera galduekin, bere porrot guztien amaraunean eraikitako hiri zatia zen...	27
amatasun ama sentitzea	Luze dauka, begietarain, den baino gazteago dirudi eta Emeri adiskidetasuna amatasun sentimendu urrunaren zirriborroarekin nahastu zaio, ezustean.	49
ameskeria ametsezko nahia izatea	Erantzukizunak jarri behar dira ameskerien aurretik.	22
apar bitsa, haguna	Gero, atea itxi dutenean, garagardoaren aparra gelditu denean, bezeroak desagertu, metalezko pertsiana jaitsi...	12
apologia zerbait goretsi, goraipatu	Ikasle askoren eskuliburua zela esan zion aspaldi elkarrizketa egitera etorri zitzaion Izerdi Tanta neskatoak. Atsekabearen apologia .	72
argizari kandelen gaia	Ametsetan, argizarizkoa zuen ama eta besarkatzen zuenean, esku artean urtu egiten zitzaion.	18
arrakala pitzadura, arraidura	Bilboren arrakalen artetik agertu zen, bere dorre ketuekin, kanpai ilun, eliza apurtu, kristalezko zubi, brontzezko bihotz.	25
asaldatu larritu, urduritu	Erantzun bortitzak bera ere asaldatu egiten du. Gorputzak dardara egin dio Hamarren tokian ezezaguna imajinatzean.	56
asko botata gehienez (ere), gehien jota	Asko botata Sonnyren aurpegira txistua botatzeko azken ahalegina egingo du, eta gero zapla hilko da. Sonnyk hustu egingo dio metraileta begi zuloan...	64
atsekabe bihozmina, pena	Ginebra Erreginak arraina hozkailuan sartzen duenean sentitzen duen atsekabea baino ez dira.	46
Atxuri Bilboko auzunea	Atxurira sartu zen trena, eta karranka egin zuenean, munduaren zutabeek doministiku egin zuten.	25
atzamarkatu atzaparkatu, piltxika egin	...hobeto begiratuta, erraz ikusiko du bietarik txikienak, grisak, bestea atzamarkatu egingo duela eta haginkada bakarrarekin samatik oratu.	92
bainoago baino gehiago	Min egin nahi bazaio, haserrea bainoago , bihotzerrea bainoago, beldurra bainoago, duda eman behar zaio.	31
bazka animalientzako janaria	...katurako balio ez duenak gatz uretan ordaintzen du traizioa, arrain bazka bihurtzen da.	76



bedeinkatu goretsia, zerutiarra	Ohera lagundu dio. Ohe santu bedeinkatura .	74
berba hitza, elea	Boligrafoz idazten du. Arkatza baino nahiago, berbak neurtzera behartzen baitu.	31
berbaldun berritsua, hitzontzia	Hamar ikusi zuenean, kankailua iruditu zitzaion, begi urdinegiak –ia zuriak– zituen, beso luze, hanka palo, baserri ume. Berbaldun , korta seme, koittadu.	57
betile begietako ilea	...ahotsa apurtu zitzaion Maria Maleta gazteari, aurpegia eskuekin ezkutatu zuen eta kale ertzean eserita egin zuen negar, betileak loditu arte.	84
birrintu txikitu, triskatu	— Saihetsak hautsiko dizkidazu, jefa. — Eta birrintu egingo zaitut. Ez pentsa birrintzeko beste maite ez zaitudanik.	43
bizarra egin afeitatu	...zigarrokin ez beteriko hautsontziari kea dario, eta bizarra egin gabe dauka.	89
bulegontzi bulegodun eraikina	Hamar horditu egiten da bulegontziaren bela nagusia ikusten duenean.	51
buruhauste kezka, ardura	Badu bere lana eta txikia bada ere, badaki egiten. Buruhauste gehiago zertarako.	78
damu arrangura, atsekabea	Aurrera egiteko gogo falta, hezurretarainoko damua . Beste ezer baino gehiago, horixe konpartitu nahiko luke Hamarrekin.	47
deserri erbestea	Katu Kale, Historiaren hondar, ez-leku, deserri . Zenbat aldatu den lehen aldiz ikusi zuenetik.	81
desertore borrokatik iheslaria	Hamarrek ezer ez dakiela esan eta beti egiten duena egitea, hitzik ez desertzioaz eta desertoreez .	75
desgogo atsekabezkoa, ez-erakargarria	— Gogoratzen –dio–, gogoratzen, jefa, Bilbo urdin eta garbi zenean? Desgogo hiri, zakar, lohi eta aberats?	96
desnahi gogo eza, gogo falta	Emek disfrutatu egiten zuen bultzada hori ematerakoan. Orain desnahia , borondate ez hau.	47
deus ezer ez, tutik ez	Ezin dio ezer esan, deus leporatu. Eurak betikoak dira.	41
dolu lutoa, mina	Alde egin nahi du, baina hil dutenetako bat Kapitainaren anaia txikia zen, eta geratu egin behar du (...) bere azala ukitu eta doluak zatitu egiten duela sentitu.	40
dolua egin lutoa egin	Neuk egiten badut, listo. Egingo dut dolua .	90
dolumin sentitzen dela adieraztea	Azken agurra eta doluminak .	33
doministiku egin eztul kolpe bat-batekoa	Atxurira sartu zen trena, eta karranka egin zuenean, munduaren zutabeek doministiku egin zuten.	25
egonezin urduritasuna, artega sentitzea	Egonezinaren haizeteak oskolean dituzten arrakalak aurkitzen ditu, eta hantxe egiten du ebakia, paperaren ertzak bezala, zorrotzegi, konturatu gabe.	69
ereserki himnoa	Katu Kaleko tabernen ereserkia , «zatoz eta mindu dezagun» zioen letrak, «min egarri den azala, min gosez ahituriko hiria».	54
ernegatu gogaitu, amorratu	Hamarren Eguberri goizeko zorionak ernegatu egiten du, eta tristuraz pozoitu.	51
ernegu amorrazioa, sumindura	Emek haserreago egon nahiko luke, hemeretzi urterekin haserretzen zen bezala. Baina galdua du ernegua piztu behar lukeen fedea.	33
eromen zoramena	Bero eta busti uzten du, orduetan, eromenaren atea zabaltzen ikusten dituen arte.	44
erpin egin punturik altuena lortu	Gauaren bazterrak erpin egin direnerako, sukaldean bertan hasi da Andrea botaka.	10
erredentzio minetik libratzea	...unibertsitatera joan zen, ahaztu familiaren izen onari eusteko ahaleginak eta halakoak, Vatikanoarekin konpontzea, erredentzioa ..., txotxolokeriak.	65



Erribera ibai ondoko hirigunea	Deustuko Erriberan , Eromen Galduen labirintoa eta Ibaiaren Ezkerraldean, Zorrotzarteko Aharrausien Mesquita.	81
erromes ibiltari erlijiosoa, peregrinoa	...eta, hala ere, hementxe dago, maitasunez deseginda, inoiz baino gehiago Katu Kaleko biztanle sentitzen da, bere musikaren erromes .	82
eskorbuto gaixotasun mota	... eskorbutoari buruzko ez dakit zer ipuin kontatuko dio eta gintonikak bata bestearen atzetik edan, botilaren urdina hustu arte.	93
esne-gain esne-tela, kipurra	Emerentzat, ginebraz eta odolez zipriztinduriko esne platerkada da, eta urrun sentitzen du: esne-gainaren pisuak itota.	54
estropezuka behaztopo edo tupust eginez	Une batez, barrea baino ez, parkeko eskaileretan behera, estropezuka . Une batez, beraiek biak. Eta ez du inporta beste ezerk, une batez.	69
gangar trauskila, itxura traketsekoa	Baina badaki. Bat-batean badaki eta barrez lehertu da. Elkar ezagutu zutenean egiten zuen bezala, karkailaka. Barre gangar , zabal, erotua.	68
ganora estiloa, fundamentua	— Ez duzu etxera joateko ganorarik . Gera zaitetz hementxe goizean, ergel hori.	73
goragaletu botagurea sortu	Baina Eme aspaldi ez da Katu Kalera joan, erre egiten dute gorespeneak, minu laudorioek, goragaletu izen onak.	25
goranahi handitasun-irrika bizia	(«nora joango nintzateke orain, ez dut inoiz goranahirik izan, ondasuna dagoen bitartean, enpresan estimatzen naute...»).	22
gorespen laudorioa, alabantza	Baina Eme aspaldi ez da Katu Kalera joan, erre egiten dute gorespeneak , minu laudorioek, goragaletu izen onak.	25
gozagarri zaporetsua, edangarria	Beren arteko distantzia zazpi kontinente dira. Hamarrentza, mundo baso bete ginebra da, mingostasunak egiten du gozagarri .	54
gurin mantekilla (esnegai biguna)	Borroka Ahaztuen Elizako atean eskalea dabil abesten, bihotza gurinaren antzera zatitzen duen otoa.	79
haginka egin kosk egin, egin, ausiki egin	Besteek haginka egiten dioten lekuan, Bombay Shapphirek besoetan hartu eta mundua nahi duen lekuan jartzen dio.	9
haluzinazio irudipena, imajina asmatua	...leioan iruditu zaio, une batez, katu beltza ikusi duela. Segundo bat baino ez, kamiseta zuri-gorrien artean haluzinazioa zirudien.	46
hankarte sabelpea	Urtu egiten zaizkio mingaina eta ahoaren hezea, belaunak eta hankarte , penaren eztanda luze eta zurian.	32
hautsi apurtua	Emeri ez zaio izozkia gustatzen eta lana egin ondoren ez da inoiz geratzen bihotz hautsien hondamendirako.	25
higuin nazka, antojua	Ez zuen nahi. Bene-benetan esan lezake ez zuela nahi, eta sentitzen duen higuina bere buruaren nazka dela.	41
horditu mozkortu	Hamar horditu egiten da bulegontziaren bela nagusia ikusten duenean.	51
hustu deskargatu	Asko botata Sonnyren aurpegira txistua botatzeko azken ahalegina egingo du, eta gero zapla hilko da. Sonnyk hustu egingo dio metraileta begi zuloan...	64
ikara egin dardaratu, mugitu	...telefonoak ikara egin dio, bakeroen poltsikoan, behin.	23
ileak laztu azkortu, ileak tente jarri	Bat negarrez hasten denean, denak batzen zaizkio. Ileak lazten dituen penaren itsasoan.	33
indarge ahul, makal	Baietz egin zuen, buruarekin, indarge . Hagin artean zuen zulo txikiari erreparatu zion Emek lehen aldiz. Polita zen.	65
irribarrea jantzi aurpegikera goxoa ipini	Beste batzuek botoiak saltzen dituzte, edo autobusak gidatu edo auto-saltokietan irribarrea jantzi .	19
itolarri arnasestua, estutasuna	Lagunari gezurra esatearen itolarria jasangaitza zaio.	47
itzal gerizpea	Hitz asko daude katu hori zer den azaltzeko. Miseria Lagun. Bele Gizon. Ilun. Itzal .	46



izerdi lamatan izerdi asko ere asko bota	Izerdi lamatan zegoen koittadua, bere altzoan.	63
jakitun jakinarene gainean	...Katuene usaineen ibiltzen zirela Txakurrak auzo hartan, halako familia Atsekabearen Armadarentzat erakargarri zela jakitun , lerre jario jartzen zituela.	61
kankailu baldarra, baldresa, trauskila	Hamar ikusi zuenean, kankailua iruditu zitzaion, begi urdinegiak –ia zuriak– zituene, beso luze, hanka palo, baserri ume. Berbaldun, korta seme, koittadu.	57
karkailaka algaraka	Elkar ezagutu zutenean egin zuten bezala, karkailaka .	68
karranka egin zarata bizi metalikoa	Atxurira sartu zen trena, eta karranka egin zuenean, munduaren zutabeek doministiku egin zuten.	25
katebegi katearen azken uztaitxoa	Bakarrik egiten dute lan, baina bada agintaritzat bat, bada kate bat eta beren moduan katebegiak baino ez direnek astean behin elkartu behar dute...	12
katurako balio armetarako balio (katu= <i>gatillo</i>)	... katurako balio ez duenak gatz uretan ordaintzen du traizioa, arrain bazka bihurtzen da.	76
ketu kez betea	Bilbore arrakalen artetik agertu zen, bere dorre ketuekin , kanpai ilun, eliza apurtu, kristalezko zubi, brontzezko bihotz.	25
kikildu uzkurtu, koldartu	Putasemetu izan balitz. Edo kikildu . Baina ez da hori. Nazkatu egin da.	22
koittadu gizajoa, gaixoa	Hamar ikusi zuenean, kankailua iruditu zitzaion, begi urdinegiak –ia zuriak– zituene, beso luze, hanka palo, baserri ume. Berbaldun, korta seme, koittadu .	57
kokota lepondoa, garondoa	Hamarren eskuak Emeren kokota berotu du, une batez.	51
korta seme baserritarra, abereekin ibilia	Hamar ikusi zuenean, kankailua iruditu zitzaion, begi urdinegiak –ia zuriak– zituene, beso luze, hanka palo, baserri ume. Berbaldun, korta seme , koittadu.	57
labain egin irrist egin	Ezpain bustietan labain egin duenean, haren pena leunean labain egiten zuela iruditu zaio.	17
larrua jo amodioa egin, txortan egin	...gosaria hartuko dute, larrua astiro-astiro jo ondoren.	73
latz gogorra	Erruduntasunaren ikara latza sentitu du, une batez.	90
laudorio gorespina, alabantza	Baina Eme aspaldi ez da Katu Kalera joan, erre egiten dute gorespene, mindu laudorioek , goragaletu izen onak.	25
lausotu nahastua, gardentasun gabea	Burua altxatu duenean, begirada lausotua , hiltzailea, samin sinestezinez betea ageri zaio.	76
lerde jario jarri harrituta utzi, miresmena jota	...halako familia Atsekabearen Armadarentzat erakargarri zela jakitun, lerde jario jartzen zituela.	61
lerdea dariola adurra ahotik behera	Agure zaharraren oinetan esertzen den Katuak bere zeregina du mundu honetan, atean lerdea dariola itxaroten duen Txakurrak bezala.	33
lezioa ikasgaia	Eskola umeak lezioa errepikatzen duenean nola, hala hitz egin du.	48
lohi zikina	—Gogoratzen –dio–, gogoratzen, jefa, Bilbo urdin eta garbi zenean? Desgogo hiri, zakar, lohi eta aberats?	96
loria gloria, aintza	Negar egin du, bere Katu Kale maitearen loriari irribarrez.	80
lorrindu lardaskatu, nahastu, desordenatu	Ume txikia balitz bezala lorrindu dio Hamarri ilea.	49
malenkonia goibeltasuna, tristura	Nabari zaio malenkoniaren usain sarkorrak poztu egiten duela.	28
matrailezur masailezurra, barailezurra	Alde egin nahi du begiak negarrez dituzten lagunengandik, matrailezurra tinko itxita duen Kapitainaren begiradatik.	40



metamorfosia itxuraldaketa	...aldatu egin da, labain egin du, eta orain, zenaren nostalgia ere galduta, erabateko metamorfosia izan dela onartu behar du...	90
mikaztu mingostu, garraztu	Garbitu egingo dute Katuek Katua, eta hori jakiteak urdaila mikaztu dio.	56
mortu desertu	...Katu Kale leku horiek guztiak dira, hiriaren distiraz haratago, hutsune mortuetan haziak.	79
mozkor arrail zeharo mozkortuta	Eguna alde zaharreaan bukatu dute, non bestela. Hamarrek eta Emek, nork bestela. Mozkor ez, mozkor arrail . Hamarrek ezin du isilik egon.	41
negar zotin zinkurina, intziria	Amak negarraren zotina irentsi zuen, barrura sakatu, eutsi. — Joder, umea, jdoer.	65
oharkabea konturatu gabe	Batzuetan dudekin; gehienetan, arnasa hartzen den bezala, oharkabea .	27
olgetan jolasean	...ez da jokoa, hamar urtean baino gehiagoan elkarrekin olgetan ibili badira ere.	87
opio droga mota	Katuen opio gorria, odola merkurio bihurten duen tristura likidoa.	32
oratu heldu, eutsi	Kolkotik oratu nahi izan dio eta ito, momentu horretan.	18
ordu gordin gauerdiko ordu txikiak	Fakultatean beti ziren ordu goizaldeko ordu gordinak .	14
oskol maskorra	Egonezinaren haizeteak oskolean dituzten arrakalak aurkitzen ditu, eta hantxe egiten du ebakia, paperaren ertzak bezala, zorrotzegi, konturatu gabe.	69
ostendu ezkutua	...bere porrot guztien amaraunean eraikitako hiri zatia zen, Bilboko bazterrik luzeena, Bilboko bazterretan desordenatuta, ostendua , galdua.	27
otoi errezoa	Odol isuria eta biharamunean samin otoiak Katu Kalen, horixe da beti legea.	33
ozpindu mindu, galdu	...arbitroak azken unean ez ote duen dena pikutara bidaliko, mozkorren bat haserretuko zaio orduan eta gaua ozpindu .	47
putaseme gizonezkoak iraintzeko hitza	Putasemetu izan balitz.	22
sakada bultzada, arrankada	Jendearen benetako izana asmatzen du, bihotzera begiratzen die (...). Beste guztia beraiek egiten dute. Ez dute asko behar. Sakada bat.	47
salatari norbait akusatzen duena	Hil-kanpairik gabea. Salatariena , traidoreena, leialtasunik gabeena.	56
sama iduna, lepoa	Ahoaren atzetik belarri ondoak, samako zirrikituak, titi puntak, sabeleko bihurtzea.	86
samatik oratu idunetik edo paparretik heldu	Hartu eta buruz behera jarri, harik eta munduak eurei biei, eurei guztiei samatik oratu , estutu eta hil baino lehen.	66
samin mingarria	Odol isuria eta biharamunean samin otoiak Katu Kalen, horixe da beti legea.	33
sargori bero astuna, bero sapa	Teilatua bero dago eta hamabost minutuz itxaron dutenean, sargoriaren lainoa desagertzen ikusi dute.	51
sarkor barnera sartzen dena	Maitemindu egin zuen, pozoi sarkorraren antzera, eta gorroto du orain, orduan maite zuen halako hiru.	27
sos txanponak, diru xehea	Tabernaria dirua egiten ari da, golak eta sosak , dena ondo. Ezin besterik eskatu.	46
ttu egin listua indarrez bota	Pipa azalari ttu egin dio Hamarrek, Abandoibarratik ia Deusturaino. Irribarre ahula agertu zaio orduan, entzuten ari dena ulertuko ez balu bezala.	48
txigortu errea	Etxeko atarian, ogi txigortua jaten ari da...	85



txito oilokumea	...erraza da ilusio hori apurtzea, eta hausten denean zarata polita egiten du, txitoari burua bihurritzen diozunean botatzen duen azken txioaren zarata bera.	93
txoro ez-serioa	Hamar dantza txororen bat egiten ari da, parkeko aulki gainean zutik.	68
ubeldu odolbatua, beltzunea (kolpea)	Hurrengo goizean etxera abiatu denean, ubelduak ditu gorputz atal xamurretan...	89
ukatu ezeztu, ezetsi	Nahi, baina Emek ezin du. Atsedenaeren misterioa ukatu zaio.	17
ulu uhuria, auhena, alarua	...une batez, oraindik haluzinatzen dagoela iruditzen zaio. Baina ez. Ulua benetakoa da. Hil-kanpaiak dira. Negarretan.	32
urratu arraskatu, markak egin	Mundua bere kontra, ukitzen duenak azala urratzen dio, hemezortzi hilabete putzuan,...	9
urrukada lotarako laztana	Batzuetan, Eme, zauritua etortzen da tabernara. Beste katuren baten urrukadak . Batzuetan, Hamar, odoletan.	14
urruma katuen edo usoen hotsa	Hain da ederra, Emek urruma egin nahi baitu eta nota hori luzatu, Ginebra Erreginaren bihotza bete dezan eta penaren penaz leherrarazi.	78
xirri laztan sexuala	Kontzertu epelik, kontzertu osteko xirri epelik, muxu berorik.	23
zain odol hodia	Aspirina baino zerbait gogorragoa aurkitzeko eginahaletan, xaboiak, kremak eta tiritak bota ditu harrira. Zaratak handitu egiten dizkio buruko zainak ...	73
zapla bat-batean, brastakoan	Asko botata Sonnyren aurpegira txistua botatzeko azken ahalegina egingo du, eta gero zapla hilko da. Sonnyk hustu egingo dio metraileta begi zuloan...	64
zerraldo hiloltz, hilda	Sonnyk hustu egingo dio metraileta begi zuloan, baina zertarako? Hortxe dago, zerraldo .	64
zigarrokin zigarro muturra, hondakina	... zigarrokin ez beteriko hautsontziari kea dario, eta bizarra egin gabe dauka.	89
zigilu seilua, marka grabatua	Kodernoan begiratu, irakurri, zigilua jarri. Horixe, inspektoreak egin ohi duena.	54
zipriztindu txipliztadaz bete	Emerentzat, ginebraz eta odolez zipriztinduriko esne platerkada da, eta urrun sentitzen du: esne-gainaren pisuak itota.	54
zital gaiztoa, krudela	Baina ez dago luze biziko garela baino gezur zitalagorik .	86
zorne zaurietako likidoa, gatxa	Gero Hamarrek «marianitoa?», Emek «tira» eta itxi dute zauria. Zornerik ala zorne gabe, Emek ez daki.	49
zornetua gatxez betea, infektatua	Hala ere, Emek zekien gauza bakarra egin zuen eta bero-bero zegoen zaurian jarri zion Hamarri ahoa. Odol zornetua garbitu eta gero eskuarekin estali zion.	62
zorrotz serioa	Nahi baino zorrotzago ateratzen bazaio, Hamar ez da konturatzen.	13
zotin negar hipaka	Andrea zotinka ari da, atsekabeen kontrako errezeta errazena eskuan.	9
zurbil margul, zuri-zuri, kolorge	Zurbil esnatu zen anestesiatik. Eme ondoan ikusi zuenean, irribarre egiteko indarra atera zuen.	66